

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5733

1669/2023 EBAZPENA, abenduaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Honen bidez, argitara ematen da 2023ko abenduko zikloko destinoen eskaintza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan destinoa daukaten Teknikari Laguntzaile Profesionalen D3 lanbide taldeko Larrialdietako Ibilgailuen Gidarien kategoriako/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrari dagokiona.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoan oinarritzeko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak.

Erabaki horren azken xedapenetako bigarrenak xedatzen duenez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari ahalmena ematen zaio, Ente Publikoko zerbitzu-erakunde guztietan behar bezala aplikatzeko behar diren ebazpen edo jarraibide guztiak eman ditzan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitzen da D3 lanbide-taldeko Teknikari Laguntzaile Profesionalen kategorialanpostu funtzional hauetarako: Larrialdietako ibilgailuen gidaria, Garraio sanitarioko gidaria, Zerbitzu orokorretako gidaria, Instalazioen mantentze-lanetako ofiziala, Mantentze elektrikoko ofiziala, Mantentze Mekanikoko ofiziala, Berogailu-instalazioko ofiziala, Igeltserotzako ofiziala, Pintura Mantentzeko ofiziala, Arotzeriako Mantentze-lanetako ofiziala eta Joskintzako ofiziala, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinaren 4.2.1 atalean aurreikusitakoaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du zikloaren destino-eskaintza.

Horregatik guztiagatik, eta indarrean dagoen legeriak pertsonalaren arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten D3 lanbide-taldeko larrialdietako ibilgailuen gidariaren kategoriako/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko abenduko zikloko destinoen eskaintza argitaratzea, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez deitutako zikloan, 2023ko urriaren 31 hartu da erreferentziazat eskaini beharreko lanpostuak hautatzeko, eta 2024ko urtarrilaren 18a baldintzak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko eta destino-aukeraketa egin edo aldatzeko.

Lehiatzaileek eskabidea aldatu ahal izango dute, destinoen hautaketa barne, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eta urriaren 21eko

1314/2021 Ebazpenaren oinarrietan araututakoaren arabera, 2024ko urtarrilaren 18ra arte, 2023ko abenduko ziklo honi dagokionez.

Destino-aukeraketa aldatzeko, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitutako aplikazio informatikoa erabiliko da.

2023ko abenduko ziklo honetan, 2024ko urtarrilaren 18ra arte egindako destino-hautaketa hartuko da kontuan, lehen adierazitakoaren arabera.

2023ko abenduko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak sartuko dira, baldin eta, 2024ko urtarrilaren 18aren amaieran, gutxienez ziklo horretan eskainitako destinoetako bat badute.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko abenduaren 27a, asteazkena

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Arrasateko Talde-Arrasate/Mondragón / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Emergentzietako Taldea-Anbulantziak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua- 12 orduko baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Data igarota
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Bidasoko Talde-Hondarribia / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Emergentzietako Taldea-Anbulantziak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua- 12 orduko baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Bilboko Taldea-Bilbao / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Emergentzietako Taldea-Anbulantziak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 orduko baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Laudioko Talde-Laudio/Llodio / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Emergentzietako Taldea-Anbulantziak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 orduko baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Mugaegunik gabe
3	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Langraizko Larrialdietako Tald-Iruña Oka/Iruña de Oca / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Emergentzietako Taldea-Anbulantziak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 orduko baino gehiagoko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Data igarota